

**ZIRKU
MOTRI
ZITATEA**

1

Proposamen metodologikoa



Ateneu Popular 9 Barris zentro soziokulturala da, 1977an sortu zen auzo-autoantolaketatik, asfalto fabrika bat okupatzearen ondorioz. Ondoren, gune kultural eta komunitario bihurtu zen.

Urte batzuk geroago, zentroa udal-titulartasunekoa izatera igaro zen, baina kudeaketa herritarren esku geratu zen, eta horrek erreferentzia-gune bihurtu zuen Bartzelonako kultura ekipamenduen esparruan.

Ateneu proiektua hainbat arlotan egituratzen da: programazioa, ekoizpena, formakuntza eta ikerketa, eta honako hauek zeharkatzen dute: lurraldean esku hartzeko borondatea, kultura jardueraren gune gisa, eta kudeaketa komunitarioa eta ekonomia soziala lotzen dituzten tresnak garatzea.

Urte hauetan zehar, **Ateneu** proiektuaren bilakaera eta harremanak ehundu egin dira hainbat esparrurekin. Bereziki azpimarragarria izan da zirkuaren munduarekin izan duen harremana, prestakuntza-arloan lan nabarmena egin baitu eta ingurune hurbila eraldatzeko espazioak ireki baititu zirku soziala gisa ezagutzen denaren bitartez.

Esku artean daukazu material hau, euskaraz argitaratzen den lehen zirku material pedagogikoa da, Bartzelonako **Ateneu Popular 9 Barris** auzo etxeak sortu zuen 2023. urtean bere komunitatea eta territoria ehuntzeko dinamika baten barruan, eta Euskal Zirku elkartearekin batera gauzatutako elkarlan bati esker, euskaraz erabiltzeko aukera izango dugu hemendik aurrera.

Horrexegatik, lehenik eta behin, **Ateneu** eta gure lotura izan den Guilleri eskertu nahi diegu beraien eskuzabaltasuna eta ekimen hau burutzeko izan duten jarrera.

Bigarrenik, material pedagogiko hau aukeratu baldin badugu, oso ezaugarri zehatzak dituelako izan da eta Euskal Herriko eskoletan erabiltzeko indargune ezinhobeak dituela uste dugulako.

Materiala sortu eta garatu duen lan taldearen kalitatea, eskarmentua eta begirada. Carolina Liniado Marcos psikomotrizista eta Serena Vione zirku artistarekin formakuntza bat jasotzeko aukera izan genuen eta haien proposamenarekin txundituta geratu ginen.

Hurbileko eskolekin batera garatu eta esperimentatu den materiala da hau, elkarlanean sortua eta eskola ezberdinetako errealitateekin kontrastatua. Katalunian funtzionatzen baldin badu, zergatik ez Euskal Herrian.

2-7 urteko umeekin lan egiteko zirkua eta psikomotrizitatea uztartzea proposamen guztiz egokia iruditzen zaigu. Zirkua bogan dago euskal eskola askotan, material honek baldintza, testuinguru, begirada, ikuspuntu eta proposamen egokiekin egiten lagunduko duelakoan argitaratzen dugu.

Honetaz guztiaz gain, materiala euskaraz argitaratua ikustek sortarazi digun zirrara da ederrena, eskuartearen edukitzean sentitu dugun poztasuna da partekatu nahi genukeena. Euskal zirkuak bide luzea dauka aurretik, erronka politak bezain handiak, honekin, euskal jendartearekin dugun konpromezua eta lotura erakutsi nahi dugu eta haur zein hezitzaileentzako aukera berriak zabaltzen lagunduko digulakoan gaude.

Gozatu zirkuaz

Mikel Pikatza Rodriguez
euskal Zirku elkartearen izenean

Egileak

Carolina Liniado Marcos eta Serena Vione

Koordinazio teknikoa

Elies Martínez Codina

Guillermo Vidal-Ribas Belil

Jatorrizko proiektua

Ateneu Popular Nou Barris Bartzelonako udalaren "Pla de Barris"-en babesarekin.

Euskarazko reedizioa

Euskal Zirku Elkatea Eusko Jaurlaritzaren kultura eta hizkuntza politika sailaren babesarekin.

Lankidetzan aritu diren irakasle-taldeak

El Torrent Sehaska Eskola

Pla de Fornells Sehaska Eskola

Antaviana Institutu Eskola

Trinitat Nova Institutu Eskola

Turó de Roquetes Institutu Eskola

L'Airet Hautzaindegia

Maketazioa

Mercedes Sánchez Rodríguez

Ilustrazioak

Gus Regalado

Argazkiak

Paula Belil Pires

Testu-zuzenketa

L'Entrellat SCCL

Itzulpena

Olaia Salegi (BAKUN, S.L.)

Esker onak

Borja Lozano Castro, Congr s, Indians Eskola, Trinitat Nova Institutu Eskola, Espai 3 Ulls, Nou Barris-eko Baliabide Pedagogikoen Zentroa, Asvin Lopez, Iraitz Lizarraga Ari e Azkue hirune Zabala Nahia Iparragirre Koldo arakistain, Xabi Larrea, aitziber Atorrasagasti eta Ana Lopez Asensio.

Jatorrizko edizioa katalanez, Bartzelona 2023.eko azaroa.

Euskarazko berredizioa, Bilbao 2025.eko ekaina.



PLA DE BARRIS





AURKIBIDEA

1 HEZKUNTZA-PROPOSAMENA	7
1.1. Zer da zirkumotrizitatea?	7
1.2. Posizionamendua	7
1.3. Oinarrizko kontzeptuak	8
1.4. Helburuak	9
2 LAGUNTZA	10
2.1. Pertsona helduen egitekoa	10
2.2. Laguntzari buruzko ohiko galderak	12
3 ESPAZIOA ETA MATERIALAK	14
3.1. Materialen zerrenda	14
3.2. Zirkumotrizitateko kartak	22
3.3. Espazioaren prestaketa	22
3.4. Airekoen instalazioa eta segurtasuna	23
4 IBILBIDEA	24
5 SAIOA	26
5.1. Sarrera- errituala	27
5.2. Mugimen- esperimentazioa	27
5.3. Zirku- jarduera	28
5.4. Itxiera	29
5.5. Saio ondokoa	29
6 EBALUAZIOA	30
6.1. Hasierako ebaluazioa	30
6.2. Ebaluazio jarraitua	30
6.3. Amaierako ebaluazioa	31
7 1. ERANSKINA: MATERIALAK. EZINBESTEKOAK ETA GOMENDAGARRIAK	32
8 2. ERANSKINA: KARTAK MUNTATZEKO ARGIBIDEAK	33



Erabili QR kodea web-orrian sartzeko.
Handik deskargatuko dituzue zirkumotrizitateko
kartak eta beste material batzuk.



Erabili QR kodea tutoretza-bideoetan sartzeko.

CREATIVE COMMONS LIZENTZIA
Esleipena - Ez-komertziala - Berdin partekatu
(CC BY-NC-SA 4.0)





HEZKUNTZA- PROPOSAMENA

Maleta pedagogiko honen helburua da zuen ikastetxean zirkumotrizitateko prozesu bat gauzatzea, bi eta zazpi urte arteko haur-talde batekin edo gehiagorekin.

1.1. Zer da zirkumotrizitatea?

Jarduera honek psikomotrizitate erlazionaleko prozedurak konbinatzen ditu zirkuko arteen elementu eta teknikekin. Haurren garapen globala bultzatzea du helburu, eta, horrez gain, espazio desberdin bat sortu nahi du eskolaren barruan, haurrek elkarrekin gozatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko denbora bat izan dezaten.

Maleta honekin, proposamen inspiratzaile eta estimulatzaile bat planteatu nahi dizuegu, hala ikastetxeari nola zuei, profesional gisa. Zirkumotrizitateko prozesu bat martxan jartzera gonbidatzeaz gain, ideia da zuek interesgarriak iruditzen zaizkizuen baliabideez jabetzea eta baliabide horiek egoki deritzozuen moduan eraldatu eta aplikatzea. Ikastetxean dauzkazuen behar eta nahien neurrira egokitzen badituzue, egiten duzuen gorputz- eta adierazpen-lan osora ere eraman ditzakezue.

Aurkezten dizuegun prozesuak hamaika saio dauzka, ordu eta erdi inguru irauten dutenak, nahiz eta pixka bat gehiago luzatzeko iradokizunak ere badauden (hamalau saio, gehienez). Aldi berean, proposamena ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitzeko ideiak emango dizkizuegu.

1.2. Posizionamendua

Zirkumotrizitatea jarduera bizia eta irekia da, eta, forma jakin batekin aurkezten badugu ere, haur-talde bakoitzera eta kasuan kasuko espaziora espezifikoki egokitzeko aukera ematen du.

Proposamen hau eraikitzean, **eskubide-subjektu** gisa hartu dira haurrak, hau da, izaki aktibo moduan, ulertuta ekimena daukatela eta pertsona helduen duintasun bera merezi dutela. Abiapuntutzat hartzen dugu bakoitzak, dagoen eboluzio-etaparen arabera, erlazionatzeko eta inguruan duen mundua ezagutzeko modu berezi bat daukala, ezaugarri eta behar espezifikoekin. Beraz, ulertzen dugu hezkuntza-proposamena egokitu behar zaiela haurrei (bi eta zazpi urte artekoak), eta ez alderantziz.

Zirku eta psikomotrizitateko saio integratu hauek ibilbide bat bezala planteatzen dira, haurrek zirkuko diziplinak ezagutu eta esploratzerik izan dezaten, jolasa eta aurkikuntza

oinarri hartuta. Prozesu horretan, esperimentatzeko denbora emateko prest dauden pertsonen laguntza behar dute haurrek. Pertsona horiek norberaren erritmoa errespetatuko dute, baina, aldi berean, gai izango dira, beharra sortu ahala, elementu tekniko erraz batzuk haurren eskura jartzeko.

Hala bada, zirkumotrizitateak helburu du haurren aurkikuntza eta bat-bateko ekintza indartzea, aurrez pentsatu eta prestatu behar den espazio batean. Metodologia honen arabera, mugimendua da garapenaren ardatza globaltasunaren etapan, eta, horregatik, oztopo ez izaten saiatzen da, hau da, lagundu eta erraztu egin nahi du. Lekua eman nahi zaio haur bakoitzaren mugimen-adierazkortasunari, bilakatzeko aukera eman, eta, aldi berean, zirkua osatzen duten diziplina eta teknikekin esperimenta dezatela. Ondorioz, ekintza-askatasuna sustatu nahi da, taldearentzat motibagarria izango den eta segurtasuna emango dien laguntzaren bidez, eta, horrekin batera, esku-hartze gidatuagoak sartzea da asmoa, haurren esperimentazioa proposamenaren hezkuntza-helbururantz bideratzeko.

Haurren behar eta ezaugarriak errespetatzea da irakasle-taldearen ekintza-gida: heltze- eta ikaskuntza- erritmo desberdinak errespetatzea, ikasteko modu desberdinak errespetatzea eta norberaren lehentasunak errespetatzea.

Hauek dira proposatutako **metodologiaren ardatz nagusiak**:

- materialekin eta espazioekin esperimentazio askea egiteko denbora ematea;
- aurkikuntzari lehentasuna ematea;
- espazioaren eta proposamenen izaera ludikoari eustea, jolasa eta plazera ikaskuntzaren motor gisa kokatuz;
- zirku-jarduerak sartzea, haurrek beren gorputzarekin, materialekin eta espazioekin dauzkaten aukerak aberasteko.

1.3. Oinarrizko kontzeptuak

Psikomotrizitatearen arloan, bi eta zazpi urte arteko etapari **etapa global** deritzo, haurrak egiteko, jarduteko eta ezagutzeko daukan moduan globaltasuna baita bereizgarri. Hots, haurraren egitura motorrak, afektiboak eta kognitiboak osotasun bat osatzen dute.

Garapena bultzatu nahi badugu, komenigarria da haren esperientziaren izaera globala gogoan izatea ikaskuntza-prozesua imajinatzean, eraginkorra eta efizientea izango baita haurraren egitura guztiak egoeraren bizipenean integratuta badaude.

Horregatik aipatzen dugu **aurkikuntza**. Haurrei utzi egin behar zaie materialetara hurbiltzen, aldezturik ezer esan gabe, materialekin lotuta beren gorputzak ematen dituen aukerak esperimenta eta esplora ditzaten. Baina jolas-prozesu hori errazteko, estrategikoki kokatuta egon behar dute materialek. Materialarekin harremanetan jartzea eta bat-bateko ekintzatik interakzioan aritzeko hainbat modu probatzea da kontua —betiere, taldeko gainerako kideekiko bizikidetzarako beharrezkoak diren mugak errespetatuz—.

Haurrei aurkitzen edo deskubritzen uzteak, praktikan, horretarako denbora ematea esan nahi du, beren prozesuarekin pazientzia hartzea eta haien gaitasunetan konfiantza izatea.

Horrek ez du esan nahi zain egon behar dugunik haurrek dena modu autonomoan deskubritu arte. Aitzitik, «elkarrizketa» batean sartu behar dugu, eta haren bidez behatuko diogu haurren ekiteko moduari. Haien jolasean eta haien gorputzaren aukeretan bilakaera eragiteko zer egin dezakegun ikusi ondoren, gure presentzia eskain diezaiekegu, segurtasun handiagoa senti dezaten, eta iradokizun soilak egiten joan gaitezke, haurra zer puntutan dagoen kontuan

hartzen dutenak (haurrei saioan zehar laguntzeko moduari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, jo 2. puntura («Laguntza»).

Mugimen-esperimentazioa eta, aldi berean, zirkuko diziplinetara hurbiltzea errazteko, **itzulinguruaren estrategia** erabiltzen da. Haurraren jardueran zeharka eragin dezaketen espazio eta materialetan esku- hartzeak egitean datza. Esperimentazio jakin batzuk sustatzea da helburua, ekintzara gonbidatzea espazioa prestatzeko moduaren bidez, eskura jartzen ditugun materialen bidez, geure burua eredu gisa jarrita eta agindu ireki batzuk emanaz, esperimentazioa eta aurkikuntza sustatzeko inspirazio-iturri izan daitezten. Azken batean, esperimentazio jakin bat eta jolasean duen emozionalitatea konbinatuta sortzen dira ikaskuntzak haurrarentzat.

Ulertzen dugu, gainera, jarduerak **izaera ludikoa** izan behar duela. Parte hartzeko, aretoan esperimentatzeko eta zirkumotrizitateko prozesuan lortu daitezkeen ikaskuntza guztietara hurbiltzeko motibazio nagusia plazera den denbora eta espazio batez ari gara.

Amaitzeko, **mugimendua metodologiaren ardatz nagusia** dela esaten dugunean, bi eta zazpi urte arteko haurrak garapen motorra nagusi den etapa batean daudela pentsatuz egiten dugu: arrastoa utziko du haiek beren buruaz daukaten irudian, afektibitatean, segurtasunean, baita ondorengo ikaskuntzak garatuko dituzten moduan ere.

1.4. Objectius

Maleta honen **helburu nagusia da zuei beharrezko tresna eta baliabideak ematea**, zirkumotrizitateko prozesu bat arrakastaz eta segurtasunez ezar dezazuen, aberasgarria izango dena bai haurrentzat, bai hura emango duten pertsona helduentzat, jarduera egiteko espazioa eta denbora zeinahi direla ere.

Modu zehatzagoan, helburu osagarriak dauzkagu, ikasleei, irakasle-taldeari eta ikastetxeari begira:

Haurrentzat:

- garapen globalean laguntzea, zentzu-mugimenezko esperimentazioaren bidez;
- beren burua seguru eta ondo lagunduta ikus dezaten zaintzea, ikaskuntzan motibatuta eta inplikaturik senti daitezten, eta eskolako pertsona helduekiko harremana konfiantzaz bizi dezaten;
- zirkuko arteak haurrei hurbiltzea, teknika erraz batzuk erabiltzen hasi daitezten eta adierazpen-gaitasuna handitu dezaten, modu ludikoan eta ikaskuntzaren protagonista izanik.

Irakasle-taldearentzat:

- haurren garapen globalean laguntzeko **baliabide-sorta zabaltzea**, ezagutzak hurbiltzeko hainbat modurekin esperimentatuz;
- itzulinguruaren estrategia sartzeko **bideratu gabe laguntzeko**, eta haurrekin erlazionatzeko modu berriak aurkitzea jardueran zehar.

Ikastetxearentzat, oro har:

- ikastetxean dauden material eta espazioei balioa ematea eta haiek ikusteko, antolatzeko eta haietaz pentsatzeko modu berri bati heltzea, **erabilera eta aukera berriak** sortzeko helburuarekin.

2 LAGUNTZA

2.1 Pertsona helduen egitekoa

Proposameneko laguntzan, lehenetasuna da era guztietara segurua den espazio bat ematea, zirkuko materialekin eta diziplinekin esperimentatzeko askatasuna sustatuko duena. Gainera, oso garrantzitsua da haurren mugimen-miaketa aberastuko duten esku-hartzeak egin ahal izatea, hazteko aukera emango dietenak bai beren garapen globalarekin lotuta, bai zirkuko abileziak eskuratzeari dagokionez. Laguntzeak esan nahi du, halaber, zailtasun gehien dituzten haurrak animatzea, jardueraz gozatzeko aukera izan dezaten, eta egokitzapenak egitea, behar izanez gero.

Oso zaila da aurrera egitea pertsona heldu bakar bat badago, batez ere ikastalde osoarekin lan egin behar badu. Gure iritziz, **bi pertsonak ikastalde-erdiarekin lan egitea izango litzateke egoera ideala.** Ezinezkoa balitz, ikastalde osoarentzat laguntzaile-pare bat izatea lehenetsiko genuke, proposamena kalitate-berme handiagoarekin burutzeko.

Pertsona laguntzaileen lehenbiziko funtzioa **espazioak planifikatzea eta prestatzea** da. Aurkikuntza sustatu nahi badugu, espazioak berak jolasteko gonbita egin dezan lortu behar dugu. Eta hemen segurtasunari erreparatu behar zaio, argi dago, baina, era berean, beharrezkoa da arrisku-sentsazioa sortzea, jarduera interesgarria eta erronka egokia izan dadin haurrentzat. Oreka hori lortzeko moduari buruzko iradokizun eta proposamen zehatzak aurkituko dituzue maletako dokumentuetan.

Bestalde, zuen egitekoa izango da **saioaren erritmoa eramatea**, baita taldeari jakinaraztea ere jarduera aldatzeko denbora gutxi gelditzen denean, haurrak egiten ari direna uzteko prest egon daitezen unea iristean. 5. atalean, hau da, «Saioa» atalean, azalduko dizuegu zein diren saio bakoitzaren zatiak eta nola ezarri behar den bakoitzaren denbora zehatza.

Beste egiteko garrantzitsu bat «saio ondokoa» deritzoguna izango da: **saio arteko hausnarketa**, espazio- proposamenak zein jardueretako aginduak doitzeko aukera emango baitigu. Gainera, espazioan parte hartzeko eta haurrekin jarduteko daukazuen modua ebaluatzeko eta hobetzeko balioko du. Puntu honekin lotuta, eta hausnarketa horiek gidatu ditzaketen galderak zein izan daitezkeen argiago ikusteko, baliabide zehatzak emango dizkizuegu *2. liburuxkan*, han xehetasun guztiekin azaltzen baita saioak nola garatu.

Azalpen horiez harago, **presentzia izango da pertsona laguntzaileen funtsezko jarrera**. Helburua da aretoan zer gertatzen ari den ikustea, behar duten haurrei segurtasuna ematea, sortzen diren gatazka eta zailtasunetan hurbiletik laguntzea, eta aretoko haur bakoitzaren aurrerapen eta aurkikuntza interesgarriak ospatzea —hurbiltasunak ematen duen intimitatean, talde osoak parte hartu gabe—.

Garrantzitsua da ikastalde osoaren jarduna ez etetea haur batek edo haur-talde batek egokitzen jotzen ez dugun jolas bat egiten badu edo materiala modu desegokian erabiltzen badu. Beti hobe da behar den pertsonengana hurbiltzea une horretan eta egokitzen jotzen ditugun arauak ezartzea haiekin, esku hartu edo saioaren erritmoa aldatu beharrean, talde osoa geldituko baitugu horrela.

Bestalde, laguntzaileen funtzioa da, halaber, **elkarrizketa bat sortzea haurrek egiten dutenaren eta haien jolasean eta esperimentazioan bilakaera eragiteko egin daitezkeen iradokizunen artean**. Alde horretatik, behaketatik abiatzeko eskatzen dizuegu: saio oso bat (edo bi) eman behatzen soilik. Ez egin inolako iradokizunik, eta, esku hartzen hasi aurretik, ziurtatu haurrek nahikoa denbora izan dutela materialekin eta espazioarekin esperimentatzeko. Aldi berean, behaketa horrek lagunduko dizue jakiten zer esku-hartzek funtziona dezakeen ongien kasu bakoitzean.

Proposatzen dizuegun lan egiteko moduak **huts egiteko baimena ematen du**: akatsak onartzeko, haurrenak zein zuenak, naturaltasunez jokatu ahal izateko, eta, aldi berean, erraztasunak doitzuz joateko, zuen ekintzek zer- nolako eragina duten ikusi ahala.

Jarraian, jarrera «zuzenegietan» erori gabe esku hartzeko zenbait moduren adibideak emango dizkizuegu.

- **Hurbiltzea:** batzuetan, proposamen jakin bat egiteko zailtasunak dituen haur batengana hurbiltzeak behar adinako segurtasuna emango dio hari, urrunago joatera animatuko delako edo laguntza jakin bat eskatzen ausartuko delako.
- **Espazio edo material bat erabiltzeko moduan mugak jartzea:** beti berdina egiten badute eta uste badugu ez diegula uzten aukera berriekin esperimentatzen, egiten ari zirena mugatzeko aginduak eman ditzakegu, eta ikusi horrek jolasean bilakaera eragiten duen.
- **Adibidez:** imajinatu banku bat jarri duzuela horma-barretatik zintzilik, plano inklinatu moduan, eta txirristatzat baino ez duzuela erabiltzen. Orduan, zutik edo belauniko baino ez pasatzeko eska dakieke, arau horrek beste oreka- mota batzuk probatzera eramane ditzan.
- **Material lagungarriak hurbiltzea:** igoera erraztuko duen prisma-formako burko batek, adibidez, une jakin batean haurrarentzat zailegia den erronka bat gainditzen lagundu dezake.

Pentsatzen dugu eskolako irakasle-taldearen baitan ez dela zirkuko artistarik egongo. Ez kezkatu: baldin badago, ondo baino hobeto; baina ez dago hala izan beharrik, eta aldeaz aurreko ezagutzarik ere ez da behar zirkumotrizitateko prozesu bat hasteko. Hurbilketa errazteko, muntaketa-aukerak, proposamen zehatzak, jolasak eta jarduerak aurkituko dituzue ibilbideko saio bakoitzean. Horiei esker, aretoko elementu bakoitzarekin lan egiteko gidoi bat izango duzue, eta errazago ulertuko duzue nola lantzen diren zirkuko diziplinak.

Ziur asko, **oso egiteko aktibo eta zuzenekoa egokituko zaie zirkuko jarduerari**, baina ez ahaztu proposatutako aginduetan oinarrituta haurrek beraiek egiten dutenari espazioa utzi behar zaiola.

2.2 Laguntzari buruzko ohiko galderak

Zer egin behar dugu proposamenetara hurbiltzen ez diren haurrekin?

Haur batzuk ez dira proposamenetara hurbiltzen, edo proposamen batzuetara soilik. Hainbat arrazoiengatik gerta daiteke hori. Behaketaren bidez, zer gertatzen zaien ulertu, eta haiei saioez gozatzen laguntzeko erantzun egokia aurkituko dugu.

Arrazoiak zein izan daitekeen baloratu behar dugu: segurtasun-kontua den, ezintasun-sentsazioa, motibazio eskasa edo beste bat. Argi ez baldin badaukagu zer arrazoi dagoen proposamenetikiko pasibotasun horren atzean, esku hartzeko hainbat modu probatu beharko dira, fintzen joateko eta, azkenean, konponbide bat aurkitzeko.

Kontua ez da inor ezer egitera behartzea, baizik eta zerbait aurkitzea, esperimentatzeko berezko nahiarekin konektatzen lagunduko diona.

Batzuetan, egoera hau gertatzen da: ez da haur bakar bat hurbiltzen ez dena, baizik eta talde oso bat. Fenomeno horrek beste era bateko tratamendua eskatzen du. Taldearen ohiko jolas-jardunarekin lotutako mugaren bat jar liteke, eta, hala, beste aukera batzuetara zabaltzeko gonbidapena egin.

Edonola ere, tartea utzi behar diegu bai haur bakoitzaren bilakaera autonomoari, bai espazioko testuinguru globaleko bilakaerari, askotariko aukerak emango dizkiguten egoerak sortuko baitira han. Adibidez, gure esperientziaren arabera, trapezioak haur asko erakartzen ditu lehen egunetan, baina berritasun-sentsazioa pasatzen denean eta haur gutxiago hurbiltzen direnean, beste haur batzuk hasten dira etortzen: agian hainbeste ikaskideren aurrean ezer egiten ausartzen ez direnak, seguru sentitzen ez direlako.

Amaitzeko, saioen bigarren zatia osatzen duten zirkujarduerak nahikoa bultzada izan daitezke aldeztu aurretik material jakin batekin interakziorik izan ez duten haur batzuentzat, eta, horrenbestez, lehen kontaktu bat izango dute zuzendutako lanari esker. Askotan, zuzendutako lehen kontaktu hori nahikoa izaten da beste egun batean beren kabuz hurbildu eta miatzeko.

Zer egin behar dugu hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten haurrak badauzkagu ikastaldean?

Edozein kasutan, benetan beharrezkoa denean soilik egokituko ditugu proposamenak. Laguntza hurbila eskainiko dugu, haurrarekin batera jakiteko zein izango litzatekeen egokitzapenik egokiena, betiere behaketatik abiatuta lan eginez eta haurrak bere gaitasunekin harritu gaitzan utziz. Izan ere, zirkumotrizitateak askotariko proposamenak egiten ditu, eta hori aprobeitza dezakegu haur guztien interesak, nahiak, beldurrak eta abileziak hobeto ezagutzeko, HPBak dituztenenak barne. Lehen-lehenik «Zer behar duzu?» galdera egitea (modu esplizituan edo ez) oso erabilgarria izango da haur horiei laguntzeko.

Mugimen-autonomia daukaten haurrak badira (baita mugikortasun horrek aparteko ahalegina eskatzen badie ere), laguntzean mugimen-askatasuna emango diegu, beren

esperimentazioa babesten ahaleginduko gara une oro, eta neurri berean saiatuko gara taldeko gainerako kideekiko bizikidetza egokia bermatzen.

Autonomiarik ez badago, proposamenak egokituko ditugu, haurrari entzunda betiere, proposamen bat edo beste probatzeko daukan motibaziotik eta hura lortzeko duen laguntza-lehentasunetik abiatuta.

Haur batek, bere behar bereziak zein, laguntza oso hurbila behar izan dezake, kontu fisiko edo afektiboengatik, eta hori kontuan izan behar da saioak kalitatez egiteko zenbat laguntzaile behar diren pentsatzean.

Zer esan nahi du haurren jolasean bilakaera eragiteak?

Baliabideak ematea da helburua, prestatuta dauden haurrek esperimentazio konplexuagoak edo, gutxienez, desberdinak egin ditzaten, eta erronka eta abilezia berriak esploratzeko aukera izan dezaten.

Ez dugu beste zerbaitera pasatzeko asmorik izan behar, oraindik prest ez baldin badaude. Aitzitik, haurrek egiten duten hori sustatzen saiatuko gara. Hau da, horrekin esperimentatzen jarraitzeko modua jarriko diegu eskura, ikaskuntza sendotzeko, eta horrek segurtasun-sentimendua indartuko die erronka berriei aurre egiteko orduan.

Bestetik, esperimentazio aurreratuagoak egiteko baliabide guztiak dauzkatela ziurtatuko dugu: segurtasuna eta konfiantza eman behar dira, espazioa egokia dela egiaztatu, eta gauza berriak probatzea iradoki. Adibidez, zirkumotrizitateko karta bat haurraren eskura jarritz egin liteke iradokizuna, trapezioan kopiatzeko gai den irudi batekin, gu geu eredu izanik edo, lehen aipatu den bezala, elementu baten erabileran arau berriak sartuz, hala nola haurrak jada belauniko ongi kontrolatzen duen plano inklinatu batetik zutik pasatu behar izatea.



3 ESPAZIOA ETA MATERIALAK

Zirkumotrizitateko saio bat egiteko, **psikomotrizitate-aretoa** edo **gimnasioa** behar da. Espazioak aukera eman behar du airekoekin lan egiteko elementuak zintzilikatzeko, hala nola trapezioa edota oihalak (gai honi buruz informazio gehiago nahi izanez gero, jo 3.4 atalera, «Airekoen instalazioa eta segurtasuna»). Gainera, oso gomendagarria da horma-barrak izatea.

Espazio egokiaz gain, **material-sorta** bat ere beharko duzue:

- ikastetxean daukazuen psikomotrizitate-elementuak;
- zirkuko material espezifikoak;
- zirkumotrizitateko kartak.

Posible da prozesu aberasgarri eta oso bat bizitzea nahiz eta material asko izan ez: sortzaileak izan behar dugu muntatzen, eta eskura daukagun materialen funtzionaltasunari zukua ateratzen ikasi behar dugu. Edo, are gehiago, elementuak birzikla eta eraiki ditzakegu eguneroko objektuetatik abiatuta!

Kapitulu honetan, beharko dituzuen materialak, aretoak muntatzeko gomendioak eta segurtasunari buruzko ohar garrantzitsu batzuk aurkeztuko dizkizuegu.

3.1. Materialen zerrenda

Zirkumotrizitateak psikomotrizitatea garatzera gonbidatzen zaituzte, hainbat **zirku-diziplina** esploratzen dituzuen bitartean: orekak, akrobaziak, jauziak, airekoak, malabarak eta gorputz-adierazpena. Bloke bakoitzean, material jakin batzuk erabiliko ditugu, ikastetxean daukazuen psikomotrizitate-elementuak eta zirkutik datozen elementu espezifikoak konbinatuz.

Material horietatik guztietatik, batzuk ezinbestekoak izango dira zirkumotrizitateko saio hauek ibilbidean azaldutako moduan egin nahi badira. Beste batzuk gomendagarriak dira soilik, eta ikasleen esperientzia aberasteko osagarri moduan funtziona dezakete, proposamen- eta erronka-aukera zabalagoarekin¹.

EZINBESTEKOAK

GOMENDAGARRIAK

¹ Material guztiak biltzen dituen taula bat ere aurkituko duzue 30. orrialdeko eranskinean. Ezinbestekotan eta gomendagarritan sailkatuta ageri dira.

Psikomotrizitateko material hauek erabiliko ditugu:



● **KOLTSONETAK ETA
SEGURTASUN- KOLTSONETAK**
(*beldurra kentzekoak*)

airekoekin lan egitean lurra estaltzeko behar direnak, jauzietan erorketa-espazio bat sortzeko behar direnak, eta plano inklinatuekin segurtasunez esperimentatzekoak (arrapalak, horma-barreilotutako bankuak...)



● **ASKOTARIKO
PSIKOMOTRIZITATEKO
MODULUAK**



● **GURPIL-MODULUA**

● **SUITZAR PILOTA**



● **ZUREZKO
BANKUAK**




● MODULU ZILINDRIKOA



● ZUREZKO ESKAILERA,
GURAIZE HANDIEN ITXURAKOA



● TXIRRISTA- ARRAPALA



● ARRAPALA-
MODULUA



● ZUREZKO PASABIDEA

Zirkuko diziplinekin esperimentatzeko, psikomotrizitatean ohikoak ez diren material espezifikoak beharko dituzue.

Oreakak

Hauek egiteko, psikomotrizitateko materialak (adibidez, suitzar pilota bat, gurpil-modulu batez blokeatuta, eta zurezko pasabideak edo bankuak) konbinatuko ditugu zirkukoak diren beste batzuekin (aukerakoak):




● **PILOTA SOKA LODIA**
(8 cm-ko diametroa gutxienez,
lurrean jarrita)



● **OREKA-PILOTA**





● **OREKA-BARRA**




● **OHOL KURBATUA**

● **OREKA-BLOKEAK**



● **TRIKIMAKOAK**



● **OREKA-ARRABOLA**
(roller-a)



● **UKIPEN-DISKOAK**



● **OREKA-ESTAZIOA**


Akrobaziak

Akrobaziak egiteko, babestutako gainazal lau bat baino askoz gehiago ez da behar. Psikomotrizitateko materialez gain, hauek erabil ditzakezue:

GOMENDAGARRIAK



● ZUREZKO TRANPOLINA



● MINITRAMP
ITXURAKO OHE
ELASTIKOA



● ESKU ETA OINETARAKO ZIRKUITUA

Airekoak

Airekoekin lan egiteko hainbat teknika daude, eta interesgarria iruditzen zaigu bi eta zazpi urte arteko haurrei haiek erakustea. Horretarako, hauek beharko dituzue:




● AINGURAKETA-PUNTU ETA -
SISTEMA EGOKIAK



● HAURREN TRAPEZIOA



● AIREKOETARAKO
OIHALAK EDO
ANTZEKOAK



● GIMNASIA-
ERAZTUNAK



● SOKAZKO ESKAILERA

EZINBESTEKOAK

GOMENDAGARRIAK

Jauziak

Jauziak, zirkuari dagokionez eskaintzen dituzten aukerez harago, haurrek etapa globalean dauzkaten premien parte dira: jauzi egitearen ekintza bideratu egiten da desorekak gainditzeko, gorputza bateratzeko eta altuerarekin esperimentatzeko, bizipen horiek gorputz- eta emozio- segurtasunerako zer suposatzen duten jakinda.

Altueren eta oreken gorputz-esperimentazioekin lanean ari garenean ere balio digute, jauzi egiten ikastea erortzen ikastearekin lotuta baitago, eta hori ezinbesteko abilezia bat da zirkuko diziplina askotan.

Haurrek jauziak esperimentatzeko, psikomotrizitateko materialak erabiliko ditugu.

Malabarak


Malabarak zirkumotrizitatearen funtsezko osagaietako bat dira. 2. liburuxkan, xehetasun guztiak azaltzen da saioen edukia, eta han aurkituko dituzue orain ezinbesteko gisa aurkeztu dizkizuegun materialak erabiltzeko jarduerak. Material horiek ezin badituzue eskuratu, proposamenak egokitu egin beharko dira. Nolanahi ere, pertsonako ale bat izatea gomendatzen dizuegu (batez ere, zapien eta malabaretako piloten kasuan), edo, gutxienez, nahikoa mota bakoitzetik.

EZINBESTEKOAK



● MALABARETAKO PILOTAK

● ZAPIAK




● DIABOLOA
(kontrol-makilarik gabe)

● TXINATAR PLATERA
(kontrol-makilarik gabe)



● MAZOAK
(lau eta zazpi urte arteko
ikasleentzat soilik)

● UZTAIAK



● TXINATAR MAKILA (*devil stick*)

Material horiek guztiek egokiak izan behar dute eskurik txikientzat: ahal izanez gero, malabarak egiteko materiala erostean, pilota, diaboloko eta mazo txikienak aukeratuko ditugu, egokiagoak baitira bi eta zazpi urte arteko haurren eskuetarako.

Batzuetan, gure gain hartu ezin dugun kostua izango du zirkuko materialak, edo ez dugu jakingo nola edo non erosi behar dugun. Edozein modutan, hala malabarak nola oreka-material batzuk eguneroko objektuak berrerabiliz egin daitezke, modu merke eta atsegingarrian.

Materialak haurrekin batera egiten baditugu, eskulanak egiteko aitzakia izan eta birziklatzearen kultura sustatzeaz gain, haurrek egindako lanak erabiliko ditugu gero zirkumotrizitateko saioetako zirkujardueretan.

Interneten informazioa bilatzera animatzen zaituztegu, tutoretza-bideo ugari aurkituko baitituzue han. Bizi zeuen zirkuko materialak egiteko esperientzia!

Gorputz-adierazpena

Adierazpen-proposamenetan musika jartzea gomendatzen dizuegu. Hori dela eta, **soinu-ekipo** bat beharko duzue. Horrez gain, ez duzue beste oinarritzko materialik beharko, gorputzaren adierazpen-aukerek hasiko baitzarete lanean.

3.2. Zirkumotrizitateko kartak

Zirkumotrizitateko maletan karta batzuk datozs², berariaz diseinatuak hainbat mugimendu eta irudi egiteko, hauekin lotuta:



- Akrobaziak
- Piramideak
- Orekak
- Airekoak
- Gorputz-adierazpena
- Luzaketak

Erabiltzen hasi aurretik, karten tutoretza-bideoa ikustea gomendatzen dizuegu. Bertan, akrobazia-eta piramide-kartekin jolasten ari diren bitartean haurrei laguntzeko jarraibideak aurkituko dituzue.

2. *liburuxkan*, xehetasun guztiekin azaltzen dira ibilbidea osatzen duten saioak, eta han aurkituko dituzue kartak erabiltzeko jarraibide espezifikoak.

Maila-adierazle bat ageri da kartetan (I, II edo III), irudiaren zailtasun-mailaren arabera (I mailarik errazena da, eta III, zailena). Bereizketa hori erabil dezakezue jarduerak parte-hartzaileen adinera egokitzeko. Luzaketa- eta adierazpen-kartak egokiak dira maila guztietarako, eta, beraz, ez da zailtasun-maila adierazten.

3.3. Espazioaren prestaketa

Zirkumotrizitatean, **aretoaren muntaketak funtzio argia betetzen du**, haurren esperimentazio-aukerak mugatuko baititu. Taldearen eskura dauden materialen eta proposatzen dituzuen esperimentazio-espazioen arabera antolatuko da saio bakoitza.

Espazioan zer material jarri erabakitzeko orduan, **haurrek zer egitea lortu nahi dugun pentsatu behar dugu**. Hala bada, muntaketa ezin da inprobisatu: aldeztu aurreko hausnarketak eta plangintza malgua eskatzen ditu, eta aukera eman behar du talde bakoitzera eta haien beharretara egokitzeko beharrezko aldaketak jasotzeko.

Denbora funtsezko alderdia denez, espazioa nola prestatu argi baldin badaukagu, arazoak eta energia aurreztuko ditugu. Hori bai, aretoa nola antolatu pentsatzean, errealistak izan behar dugu: oreka aurkitu behar da, eskura dagoen materialari etekina ateratzeko, baina baita muntaketak eman dezakeen lana sinplifikatzeko ere.

Zer hartu behar dugu kontuan aretoa prestatzean?

- Espazioan zer material jarri erabakitzeko orduan, argi izan behar dugu haurrek zer egitea lortu nahi dugun.
- Materialak eta muntaketa taldearen aukeretara egokitzen direla ziurtatuko dugu. Zailtasun-maila egokia aurkeztu behar dute: motibagarria eta, aldi berean, egiteko modukoa.
- Aretoak esperimentatzeko askotariko aukerak eman ditzan saiaturako gara, horrekin bermatuko baitugu haur guztiek aurkituko dutela motibatuko dituen zerbait.
- Espazioak proposatutako materialekin modu erosoan esperimentatzeko aukera ematen duela egiaztatuko dugu: aretoaren neurria zein, esperimentatzeko txoko gehiago edo gutxiago egongo dira.

² Jo 2. eranskineko 31. orrialdera, zirkumotrizitateko kartak nola inprimatu eta muntatu jakiteko.

- Esperimentatzeko espazioen kopurua eta haiek ematen dituzten mugimen-aukerak haur- kopurura egokitzen direla ziurtatuko dugu, nolabaiteko harmonia izateko eta itxarote-denborak saihesteko.
- Proposamen guztietan haurren segurtasuna zainduko dugu. Erorketak modu egokian babestu behar dira koltxoneten bidez, eta, bereziki, airekoen proposamenen segurtasuna bermatu behar da (ikus hurrengo puntua, 3.4, «Airekoen instalazioa eta segurtasuna»).

2. *liburuxkan*, saio bakoitzeko espazioa prestatzeko eta muntatzeko jarraibide espezifikoak aurkituko dituzue, eta zuen egitekoa izango da jarraibide horiek zuen ikastetxeko errealitate materialera egokitzea.

3.4. Airekoen instalazioa eta segurtasuna

Aireko elementuak erabiltzeko, ezinbestekoa izango da zirkumotrizitateko saioak egingo ditugun espazioan trapezio bat, oihalak edota sokazko eskailerak zintzilikatzeko aukera izatea.

Zirkuko aireko jardueri eta ainguraketa-sistemei buruzko informazio garrantzitsu batzuk:

- **Airekoen instalazioak eta materialak aztertu behar dira**, urtean behin gutxienez. Materiala pertsona batek baino gehiagok erabiltzen badute, sarriago berrikustea komeni da.
- **Ainguraketa-puntuak** gai izan behar du GEK (gehieneko erabilera-karga) nahikoari eusteko: normalean 22 kn (= eskalatzeko materiala), hau da, 2.200 kg.
- Ainguraketa-puntuak 2,5 metroko **altuera** izan behar du gutxienez.
- Airekoetarako materialak bost urteko **bizitza erabilgarria** izaten du, erabilera-orduen arabera.
- **Segurtasun-gailuek** (mosketoiak, malloiak eta metalezko gainerako materialak) ez dute kolperik jaso behar, ezta lurrera erori ere, 1,5 metro edo gehiagoko altueratik: kasu horretan, aldatu egin beharko dira.
- Airekoak zintzilikatzeko erabiliko ditugun **sokak** estatikoak izango dira. Soka dinamikoak elastikoak direnez, ezingo dugu segurtasunez lan egin haiekin. Soka erosten duzuenean, eskatu haren fitxa teknikoa. 10 edo 12 mm-ko diametroa izan behar du.
- Airekoak egiteko **oihal** bat erostean, kontuan izan elastikoa izan behar duela zabalera- ren norabidean, ez altuerarenean. Normalean erabiltzen den oihalaria «zetazko puntu» deritza, eta metroka saltzen da. Eskatu aurretik, neurtu zenbat metro dauden lurraren eta sabaiaren artean, 2z biderkatu (oihala erditik tolestuta zintzilikatzen da), eta gehitu metro bat, lurlean sobera gera dadin. Horrela, korapilo-zabua egiteko aukera izango dugu, eta harekin ere akrobaziak egin ahal izango dituzte hurrek.
- **Trapezioa** jada prestatuta erosten da. Bi eta lau urte arteko haurrentzat, barrak 45 cm luze izan behar du gehienez; eta lau eta zazpi urte artekoentzat, berriz, 60 cm. Soken luzerak egokia izan behar du aretoko sabaiaren altuerarako eta haurrak zintzilikatzea nahi duzen altuerarako (polea-sistema bat pentsa daiteke, zenbait altueratan muntatu daitekeena, espazio batera baino gehiagotara egokitzeko). Trapezioa bi puntutan edo puntu bakar batean zintzilikatu daiteke: baloratu, erabili nahi duzen modeloaren eta erabilgarri dauzkazuen ainguraketa-puntuen arabera.

4 IBILBIDEA

Proposatzen dizueguna **ibilbide bakar bat da, baina doikuntza batzuekin, helburu dituen haurren adinera ahalik ongien egokitzeko: 2-4 urte eta 4-7 urte**. Oinarrizko egitura beretik abiatu arren, egokitzen aukera ematen dute ibilbidea adin-tarte bakoitzaren behar eta aukeretara doitzeko.

Hamaika saio dituen oinarrizko proposamen bat aurkezten dizuegu, egitura honekin: hasierako saio bat, deskubritzeko, hiruna saioko hiru ziklo, esperimentazio-mota jakin bat lehentasunez lantzeko (fokua airekoetan eta altueretan, oreketan edo akrobazietan jarrita), eta, azkenik, itxiera-saio bat.

1. saioan, jarduera taldeari aurkeztu behar zaio, eta espazioa antolatu behar da, denetarik zerbait egon dadin, diziplina anitzeko dastaketa modura. Proposatutako espazio eta materialekin hurrek zer egiten duten behatzeko saioa da, eta bakoitzari interes handiena zerk sortzen dion jakiteko unea. Gainera, espazioan eroso sentitzeko beharrezkoak diren arauak ezartzen joango zarete.

Ondoren, lehentasunez airekoak (trapezioa eta oihalak) eta altuerak lantzeko saio bat egingo da, eta, jarraian, orekekin lotutako proposamenak nagusi dituen saio bat. Hirugarren saioan, akrobaziekin praktikatu duzue. Hiru saioko ziklo hori hiru aldiz errepikatuko da, kontuan izanik aldi bakoitzean aretoaren muntaketa zein erronken zailtasuna pixka bat bilakatu behar direla. Era berean, jarduera nagusia osatuko duten beste txoko batzuk erantsiko dituzue.

Prozesua amaitzeko, itxiera-saio bat egingo da, eta han ere hainbat proposamenekin prestatu beharko duzue aretoa.

Hori bai, **pixka bat harago joatera animatzen zaituztegu**, zuek modu autonomoan landutako laugarren saio bat sar dezazuen, hiruna saioko tarteko ziklo bakoitzaren ondotik. Laugarren saio hori diseinatzeko, taldeari egin dizkiozuen oharretan oinarrituko zarete. Beraz, hiru erantsi behar zaizkie guk proposatzen ditugun hamaika saioei, eta, hala, **hamalau saio izango lirateke guztira**. Saio horiek eransteak aukera emango dizue prozesua gehiago zehazteko nahiz aretoak muntatzen daukazuen sormena esploratzeko, eta, gainera, hurrek denbora gehiago izango dute zirkumotrizitateaz gozatzeko eta harekin ikasteko.

Gogoan izan ez dela nahitaezkoa programazio osoa egitea. Ez kezkatu. Prozesuaz gozatzeak eta ikasteak izan beharko luke lehentasuna. Eman zeuen buruari aretoak prestatzeko denbora, ikusi nola gozatzen duten hurrek eta identifikatu zerk eramaten dituen esperimentaziora. Saio gehiago edo gutxiago egin, proposamen bat planteatzen dizuegu abiapuntu gisa, eta

zeuen ibilbidea marraztera animatzen zaituztegu: zirkumotrizitateko protagonistak zuek eta zuen ikastaldea zarete.


2. *liburuxkan*, saio bakoitzaren azalpen zehatza eta adin-tarte bakoitzerako (2-4 eta 4-7 urte) egokitzenak aurkituko dituzue.

1					
2 3 4 5					
SAIOA					
FOKUA	DIZIPLINA ANITZEKO AURKEZPENA	AIREKOAK ETA ALTUERAK	OREKAK	AKROBAZIA	ASKEA
BESTE TXOKO BATZUK					
6 7 8 9					
SAIOA					
FOKUA		AIREKOAK ETA ALTUERAK	OREKAK	AKROBAZIA	ASKEA
BESTE TXOKO BATZUK		+ orekak + malabarak	+ airekoak + malabarak	+ malabarak	
10 11 12 13 14					
SAIOA					
FOKUA		AIREKOAK ETA ALTUERAK	OREKAK	AKROBAZIA	ASKEA DIZIPLINA ANITZEKO ITXIERA
BESTE TXOKO BATZUK		+ orekak + malabarak + akrobazia	+ airekoak + akrobazia + malabarak	+ airekoak + malabarak	

5 SAIOA


Zirkumotrizitateko saioak denbora hauek irauteko diseinatu dira: **ordu bat eta laurden** (haur txikienentzat) eta **ordu bat eta erdi** artean (ertain eta handientzat).

Saio bakoitza lau zatitan banatuta dago: sarrera-errituala, mugimen-esperimentaziorako denbora, zirku-jarduera bat eta itxiera.



Haurrenadinazein, egokitzen diren egindakoez zati bakoitzeko jardueretan, eta *2. liburuxkan* aurkituko dituzue xehetasun guztiak. Adibidez, haur txikien kasuan, zirku-jarduera eta mugimen- esperimentazioa ez dira bi bloketan egingo. Aitzitik, bi zatien denborak batuko ditugu, eta aldi berean landuko dira biak.


5.1. Sarrera-errituala



Hasierako topagunerako espazioa izango da. Taldeko kide guztiak aurkezteko balia daiteke (beharrezkoa bada, egun horretan ez dauden pertsonak ere aipatuko ditugu). Jarduerarako prestatzeko ere balioko digu (oinetakoak kentzeko, adibidez), erabiliko diren materialak aurkezteko, arau espezifikoak zehazteko, saioan zer egingo den azaltzeko eta beroketa-ariketak egiteko. Alde horretatik, *2. liburuxkan* beroketa-jolasen proposamenak aurkituko dituzue, nahikoa denbora izanez gero egin ditzazuen.

Lehen zati honek espazioan, jardueran eta taldean kokatuko gaitu. Eta jarduera eskolako beste espazio batzuetatik bereizteko aukera ere ematen du.

5.2. Mugimen- esperimentazioa




Sarrera-errituala egin ondoren, haurrak mugimen-esperimentazioa egiteko prestatu duzuen aretoan sartuko dira, eta hura **modu askean esploratzeko denbora** izango dute, betiere oinarrizko hiru arau hauek errespetatuta:

- 1 norbere buruari kalterik ez egitea;
- 2 besteei kalterik ez egitea;
- 3 materialak eta espazioak zaintzea.

Prestatutako muntaketa ez desegiteko ere eska dakieke, nahiz eta bi edo hiru urteko haurrekin komenigarria izan daitekeen azken arau hori malgutzea saioaren amaiera aldera, beren beharrekin bat datozen beste jolas batzuk egin ahal izateko.

Zati hau da **jardueraren ardatza**: haurrak materialekin lotuko dira beren nahi eta gaitasunetatik abiatuta. Jarraibiderik gabe deskubritzen arituko dira, eta, aldi berean, irakasle-taldeak aukera izango du haur bakoitza zer puntutan dagoen behatzeko eta haiei banan-banan laguntzeko.

5.3. Zirkujarduerak



Esperimentazio-denboraren ondoren, zirkuarekin zuzenean lotutako jarduerari eskainiko diegu tarte bat. Arau espezifikoetan oinarrituta dauden jarduerak horiek **haurren esperimentazio autonomoak aberastu eta osatu** ahal izatea da helburua.

Saioaren zati honetan, taldeko jarduerak egiteko aprobetxatuko dugu, eta haur guztiei gutxienezko ezagutza batzuk emateko, esperimentazioak errazteko asmoz.

Hiru motatako jarduerak ezarriko ditugu, txandakatzen eta konbinatzen joango direnak, haurrek jakin dezaten zirkuko zer diziplina jorratzen diren haietan.

- **Malabarak egiteko materiala ezagutzea eta harekin jarduerak egitea**

Zirkumotrizitatean, normalean jarduerak gidatu edo teknikoen aurretik egiten da esperimentazio askea materialekin. Malabarekin, ordea, salbuespena egingo dugu. Haurrek jolas sinbolikotik harago doan erabilera egin dezaten, garrantzitsua da zirkujardueren bitartez lehen hurbilketa bat egitea.

Proposamen hauetan, materialak aurkeztuko dira (izena eta erabilera), denbora utziko da aurkikuntzarako, eta aginduak emango dira, esperimentazioan aukera gehiago izatera bideratuta. Eta pixkanaka, malabarekin lotuta dauden ezagutza teknikoak helarazteko aprobetxa dezakegu. Lehen kontaktu horretaz gozatu ondoren, esperimentazio askeko espazioetan aurkeztutako malabarak erantsi ahal izango ditugu.

Kontuan izan behar dugu zein den malabarak egiteko materialarentzat daukagun azken helburua: haurrek objektuak manipulatzeko (garraiatzen jakitea, pirritan ibiltzea, hartzea, orekatzea...). Izatekotan, haur handien eta trebeenei proposatuko diegu materiala jaurtitzea, baina ez da gure lehentasunezko helburuetako bat.

Ez kezkatu aurretik inoiz zirkua egin ez baduzue: ez dago malabarista izan beharrik haurrei pilota bat jaurtitzen eta hartzen irakasteko!

- **Gorputz-adierazpena**

Antzerkia, clown artea, mimoa... hizkuntza horiek ere zirkuaren parte dira. Zirkumotrizitateko saioetan, besteak beste, musika, ipuinak, pertsonaiak, kartak eta mimesia erabiliz gorputz-adierazpena lantzeko proposamenak daude.


- **Akrobazia eta orekaren aurkikuntza**

Gorputza mugitzeko agindu zehatzak emango ditugu, eta norberaren gorputzarekin esperimentatzen hasiko gara, objektuak erabiliz edo zirku-tekniketan oinarritutako praktikak proposatuz.

Zirkuituekin lan egin dezakezue (zati bakoitzean gauza jakin batzuk egiteko), baina baita oreka- edo akrobazia-agindu zehatzak eman ere (txiribueletak, gurpilak...).

2. *liburuxkan*, saioaren zati honetan egin ditzakezuen jardueren xehetasunak aurkituko dituzue.

5.4. Itxiera



Saioa elkarrekin ixteko une labur bat da, eta hitz egiteko aukera izango dugu. Une honetan, saioan bizitako egoerak azalduko ditugu, eta esperientziak eragin dizkigun kezkak, pozak eta nahiak adieraziko ditugu. Hitzaren ordean, beste adierazpide batzuk balia ditzakegu, hala nola gorputz-mugimendua.

Azken zati honek energia-maila jaisteko aukera ematen du, eta une egokia da sentitutako emozioak identifikatzeko eta bizitakoa berrikusteko. Hala, errazagoa izango da hurrek jarraera onarekin jarraitzea eskolako jardueretan.

5.5. Saio ondokoa

Jada haur-talderik gabe, **hausnarketa egiteko espazio** bat da —saio artean ongien, jarduera amaitu eta segituan—, eta **irakasle-taldeak hartzen du parte**.

Saio bakoitzeko dinamika orokorrak nola funtzionatu duen ebaluatzeko balio du, eta hurrengo saioetan aldaketarik egin behar den aurreikusteko.

2. *liburuxkan*, saio ondoko lana egiteko lagungarri izango zaizkizuen galderak aurkituko dituzue.

6 EBALUAZIOA

Zirkumotrizitateko maletarekin biziko duzun esperientziaren bidez, asko ikasiko duzuela eta ikastetxeko eguneroko jarduna aberastuko duzuela espero dugu. Eta noski, proposamen suspengarria eta dibertigarria izan dadila ikasleentzat. Prozesu honek egingo dizuen ekarpenaz jabetzeko, hiru fasetan banatutako ebaluazio hau egitera animatzen zaituztegu.

6.1. Hasierako ebaluazioa

Abiapuntuaz jabetzeak aukera emango dizue, zirkumotrizitateko prozesua amaitu ondoren, zer eraldaketa gertatu eta zer ikaskuntza egin diren hautemateko.

Horregatik, zirkumotrizitateko saioekin hasi aurretik, garrantzitsua da taldeko kideok **adieraztea zer espero duzun** saio horietatik.

Lau eta zazpi urte arteko haurren kasuan, egokia irudituz gero, **zer espero duten** adierazteko ere eska dakieke: marrazkia eta elkarrizketa konbinatuz, adibidez. Edonola ere, lehenbiziko saioaren ondoren egitea gomendatzen dizuegu, hau da, jardueraren nondik norakoa zein izan daitekeen ikusten hasitakoan.

6.2. Ebaluazio jarraitua

Garrantzitsua da saioetan zer gertatzen den baloratzen joatea, behar diren aldaketak sartzeko. Zirkumotrizitateak ikaskuntza-espazio bat eskaini nahi dio mundu guztiari, baita hurrei laguntzen diezuen pertsona helduoi ere. Esate baterako, agian prozesuaren amaierara iritsiko zarete itzulinguruaren estrategiatik abiatuta nola lan egiten den ikasita.

Prozesuan zehar ebaluazioa egiteko gida erabilgarria da **hurrek jardueraz gozatzen duten behatzea** eta **egiten zaizkien** askotariko espazio-proposamenak aprobetxatzen al dituzten aztertzea.

Funtsezko beste alderdi bat **segurtasuna bermatzea** da. Aztertu behar dugu aretoa, prestatuta dagoen moduan, benetan segurua al den esperimentazioak egiteko. Aldi berean, baina, kontuan izan behar dugu, beharrezkoa ez bada, jardueraren segurtasunak ez duela esperimentazio-aukera murriztu behar.

Azkenik, hirugarren elementu bat ere badago: **haurren mugimen-esperimentazioetan bilakaera eragiten nola lagundu dezakegun** aztertu behar da.

2. *liburuxkan*, fitxa bat aurkituko duzue, **saio ondokoan** zeuek zeuen buruari egiteko galderekin. Saio bakoitzaren ondoren ebaluazio jarraitu hau egiten emango duzuen denborari esker, gero eta gehiago finduko dira zuen esku-hartzeak, eta taldearen esperientzia eta ikaskuntza sustatuko dituzue.

6.3. Amaierako ebaluazioa

Hamaika eta hamalau saio arteko prozesua amaitu ondoren, bizitako esperientzia eta hasieran saio hauetatik espero zenutena elkarren ondoan jartzera animatzen zaituztegu. Zirkumotrizitatearen ikaskuntza-helburuak zer mailatan bete diren baloratu behar da, eta hausnartu **prozesu honek nola aberastu dezakeen zuen ikastetxeko eguneroko jarduna**.

2. *liburuxkan* aurkituko dituzue amaierako ebaluazioa egiteko jarraibideak. Prozesuan zehar barneratutako ikaskuntzak finkatzen lagunduko dizuela espero dugu.



1.

**MATERIALAK.
EZINBESTEKOAK
ETA GOMENDAGARRIAK**

ERANSKINA

EZINBESTEKOAK

- Koltxonetak eta segurtasun-koltxonetak Askotariko psikomotrizitateko moduluak
- Gurrpil-modulua
- Zurezko bankuak edo pasabideak
- Suitzar pilota
- Haurren trapezioa
- Airekoak zintzilikatze ainguraketa-puntuak eta -sistemak
- Malabaretako pilotak (ale bat pertsonako)
- Zapiak (ale bat pertsonako)
- Kontrol-makilarik gabeko plater txinatarrak (taldearen erdiarentzat)
- Kontrol-makilarik gabeko diabolak (taldearen erdiarentzat)
- Soinu-ekipoa

4 eta 7 urte arteko haurrentzat soilik

- **Mazoak** (taldearen erdiarentzat)

GOMENDAGARRIAK

- Orekarako soka lodia
- Modulu zilindrikoa
- Arrapala-modulua
- Trikimakoak
- Oreka-barra
- Oreka-blokeak
- Ukipen-diskoak
- Esku eta oinen siluetak dauzkan zirkuitua
- Oreka-estazioa
- Ohol kurbatua
- Oreka-arrabola (*roller-a*)
- Horma-barrak
- Zurezko tranpolina
- Minitramp itxurako ohe elastikoa
- Airekoetarako oihalak
- Sokazko eskailera
- Zurezko eskailera, guraize handien itxurakoa
- Txirrista-arrapala
- Gimnasia-eraztunak
- Airekoak zintzilikatze ainguraketa-puntu eta -sistema osagarriak

4 eta 7 urte arteko haurrentzat soilik

- Txinatar makila "*devil stick*" (taldearen erdiarentzat)
- Uztaiak (taldearen erdiarentzat)
- Oreka-pilota

8.2. ERANSKINA

KARTAK
MUNTATZEKO
ARGIBIDEAK

Zirkumotrizitateko kartak espresuki sortu dira maleta pedagogiko honetarako. Sei motatako kartak daude sortan: akrobazia, airekoak, orekak, luzaketak, adierazpena eta malabarak. 2. *liburuxkan* aurkituko dituzue hurrekin egiten diren saioetan kartak erabiltzeko jarraibideak.


Hona hemen nola deskargatu behar diren kartak eta nola prestatu behar diren modu egokian erabiltzeko:

- 1. Deskargatu kartak PDF formatuan.** Horretarako, jo maleta pedagogikoa osatzen duten materialak eskuratzeko baliatu duzun web-atarira, eta sartu dagokion estekan. Ateneu Popular Nou Barris-en webgunean ere eskuratu ditzakezue: www.ateneu9b.net
- 2. Inprimatu orrialde bakoitza DIN A4 formatuan, horizontalean, neurri osoan (% 100), eta alde bakarretik.** Horrela egiten baduzue, orriaren alde batek hutsik gelditu beharko luke; bestean, berriz, karta osoa egongo da (aurrealdea eta atzealdea lerro eten baten bidez bereizita).
- 3. Tolestu orriak erditik,** eta kontuan izan ertzek ongi lerrokatuta gelditu behar dutela. Tolestutako orriaren barruko aldeek zuri egon behar dute; kanpoko aldeek, berriz, kartaren aurrealdea eta atzealdea erakutsi behar dituzte.
- 4. Itsatsi elkarren artean orrien barruko aldeak,** material itsasgarriren bat erabiliz (kola, itsasgarri-barra, bi aldeko zinta itsasgarria...).
- 5. Plastifikatu kartak** (DIN A5 neurria).

Eta prest daukazue zuen karta-sorta!

Erabili QR kodea web-orrian sartzeko. Handik deskargatuko dituzue zirkumotrizitateko kartak eta beste material batzuk.





www.ateneu9b.net

Erabili QR kodea web-orrian sartzeko.
Handik deskargatuko dituzue zirkumotrizitateko
kartak eta beste material batzuk.

